

Toti Martínez de Lezea



*Isilpean
gordea*

n a r r a t i b a •

erein

ISILPEAN GORDEA

Narratiba, 93

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2015eko azaroan

Jatorrizko izenburua:

Y todos callaron

Azaleko irudia:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9109-044-1

L. G.: SS-1405/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Toti Martínez de Lezea

ISILPEAN GORDEA

Itzulpena:
Miren Arratibel



Nire ama maiteari

*Esker onez, nire lagunei:
Javier Tazón idazle eta maisua
eta Aurora Cubillas irakurle eta kritikaria*

2008ko otsaila

*A*melia Zabaleta ehortzi eta biharamunean, haren alaba, *A*suhia eta bilobak notarioarenera joan ziren, testamentuaren irakurketara, haren herentzia oparoa jasotzeko bete beharreko izapidea baitzen. Haiekin zen Felisa “haurtzaina”, eta baita Salvador ere, garai batean etxeko txoferra izana. Biek ala biek ia bizi osoa eman zuten zenduaren zerbitzuan lanean, eta etxekoak bezala ziren ordurako. Frai Francisco Victoria ibilbideko etxetzar batean bizi ziren, nahiz eta aspaldi ez jardun etxe hartan zerbitzari lanetan; are gehiago: orain, zerbitzari gazteagoek beraiei zerbitzatzen zieten, errespetuz hitz egiten zieten eta hainbeste urtez ugazaba izan zuten emakumearekin egiten zituzten otorduak eta igarotzen zuten denbora. Egoera bitxi samarra zen, eta haren alabaren iritziaren kontrakoa, zeinak baitzioen egoitza batean bizi behar zutela bi zerbitzari zaharrek, eta ez berena ez zuten zerbaiten jabeak balira bezala. Hala ere, bestalde, konpainia egiten zioten bere amari, eta, horrela, zama arintzen zioten, jakin bazekielako ama entretenituta zegoela, eta, hala, aski zuelako noizbehinka

amarenera sartu-irtentxoren bat egitea. Edonola ere, Elvirak ez zuen ulertzen notarioak zergatik azpimarratu ote zuen behar-beharrezkoa zela bi zaharrak han izatea; biak zebiltzan bistaz labur eta erdi gor. Seguru asko, hala pentsatu zuen berak, sosen batzuk utziko zizkien amak, gelditzen zitzaien denbora apurra lasai bizi zezaten, baina berdin-berdin izango zen notarioarenera joan ez balira ere: bera arduratuko zen herentziatik zegokien parte haiei emateaz.

Eguerdiko hamabietan, mahai laukizuzen luze baten inguruan eserita zeuden irakurketara deitutako guztiak: fedemailea burualdeetako batean, bere bi laguntzailerekin batera, eta atso-agureak, beste muturrean; Elvira eta senarra eskuintaldean, eta haien hiru semeak beste aldean. Galeragatik doluminak eman ondoren, Álvaro Ugarte jauna dokumentua irakurtzen hasi zen. Urtebete lehenago sinatuta zegoen. Karitate egintzetarako legatu batzuk egin ondoren, Amelia andreak garai bateko bere zerbitzariari utzi zien etxea, baita dirutza polit bat ere, hil arte ongi zainduta bizi zitezten etxe hartan; haiek hildakoan, berriz, oinordekoen esku geldituko zen onibarra. Notarioari ez zitzaion oharkabean pasatu alabaren, suhiaren eta biloben atsekabezko keinua, jakitun zelako etxea berengantatu orduko hura saltzeko asmotan zebiltzala, akordio onuratsua egin baitzuten eraikitzaile batekin, etxea dirudunen-tzako apartamentu eskusiboen eraikin bihurtzeko. Álvaro jaunak, hala ere, irakurtzen jarraitu zuen, musean aritzen zeneko zurruntasun beraz. Gainerako guztia –bankuan gordailututako milioiak, puntako zenbait enpresatako akzioak, koa-droak, bitxiak eta Bastidako udako etxea; itzelezko dirutza,

beraz– zuzeneko oinordekoek jasoko zuten. Senideek irribarre egin zuten; azken batean, zaharrek ez zuten luze iraungo. Irribarre haiek berehalako batean lausotu ziren, ordea, entzun zutelarik “oinordekoek” hura ez zegokiela alabari eta bilobei, baizik eta alabari eta Migueli, Amelia andrearen seme zaharrenari.

Tximeleta baten hegal kolpea bera entzuteko moduko isiltasuna egin zen notarioaren despatxuan. Istant batez soilik. Elvira lehenik, haren senarra ondoren, eta semeak jarraian, denak batera hizketan hasi ziren, ezinezkoa zela esanez, eta senide hura existitzen zela erakusten zuten frogak eskatuz, haren entzuterik ere ez baitzuten izan sekula. Álvaro jaunak ez zuen zirkinik egin; iskanbila baretu arte itxaron zuen, eta, ondoren, keinua egin zion laguntzaileetako bati, jaiotza agiriaren kopia bat eman ziezaien, Miguel Aurra Zabaletarena, 1936ko ekainaren 9an jaioa, Gasteizen, aita José Aurra Eginola eta ama Amelia Zabaleta Gómez de Segura zituela, Gasteizko biztanleak biak, erditzearen unean. Kopia gris hartan, argi eta garbi bereizten ziren jatorrizko dokumentuaren tolesak: hamasei laukitxok osatutako sareta bat, jatorrizko agiria urte haietan guztietan toles-toles eginik egon balitz bezala.

Jon Martínez de Albeniz, “Jontxu, kioskokoia” ezizenez eza-gunagoa, amaren egunkari eta aldizkari dendatxoagatik, eskuin belarran hazka eta hazka zebilen; keinu hori egiteko ohitura zuen, nondik hasi ez zekienean. Hamaikagarrenez irakurri zituen mahai gainean zeuzkan dokumentuak: jaiotza agiri bat eta testamentu bat. Bere buruari galdetu zion, hamaikagarrenez, hori ere, nola arraio onartu ote zuen halako enkargu handia halako eskarmentu eskasa izanda. Seguru asko, nazka-nazka eginda zegoelako ustezko adulterioegilei jarraitzeaz, haien senarrek edo emazteek dibortziorako froga bila hala eskatuta; edo Gasteizen ez zegoelako ikertzaile batentzako lan asko. Une ezin aproposagoan iritsi zitzaion proposamena, bere finantzak gutxienekoaren azpitik zirela eta egoera ekonomiko negargarri hartatik irteteko dendaren ardura hartu beharko zuela pentsatzen hasita zegoela. Bertan behera utzi beharko zuen, bide batez, *Sherlock Holmesen abenturak* irakurri zuenetik izandako amets hura, detektibe handi bat izatera iristea, zeinak ez baitzuen egia bihurtzeko batere itxurarik. Jaiotza agiria beste dokumenturik gabe gizon bat bilatzea ez zen lantegi erraza batere. Litekeena zen aspalditik joanda egotea satorren herrira, bere amak esaten zuen bezala, edo Filipinetara bizitzera... Telefono aurkibidean ez zen ageri haren izenik, ezta Ogasunean ere; izan ere, zenbait mesede eginak zizkion

Ogasunean zuen lagun bati, eta harengana jotzen zuen bezeroen bati buruzko informazio “delikaturen” behar zuenean. Autonomia Erkidegoko beste probintzietako telefono aurkibideetan eta ogasunetan ere begiratu zuen, baita Nafarroakoetan nahiz Errioxakoetan ere. Eta Interneten. Sareen sarea osin hondogabea zen, eta denetik aurki zitekeen han. Baina izen-abizenak idatziz saiatu, eta ez zuen ezertxo ere aurkitu. Miguel Aurra Zabaleta zena zelako hura desagertuta zegoen, eta ez zekien haren bila nondik hasi. Azkenean, pentsatu zuen zerbait jakiteko modu bakarra zegoela, baldin eta jakin beharreko ezer baldin bazegoen, behintzat, eta ezinbestean heldu beharko ziola bezeroaren amaren hari-muturrari: Amelia zenari. Leihoa ireki zuen bulegoa aireztatzeko –izen hanpatuegia, inondik ere, Errementari kalean zuen zulo harentzat, ez baitzuen bi gela, sukaldea eta komuna besterik–, eteganbe erretzen baitzuen, eta kalera irten zen. Handik pixka batera, Casablanca kafetegiko mahai batean eserita zegoen, Dato kalean, Genaro Zipriano-rekin, gizon adindua bera, ezkongabea eta maniatiko hutsa, baina, batez ere, azken hirurogeita hamar urteetako txutxumutxuen oroimen handiko kronikagilea. Hirian gertatutakoek xehetasun guztiak zekizkien: izenak, familiak, pasadizoak, ezkontzak, sasikoak eta orotariko eskandaluak; baina beti ñabartzen zuen “betiko” Gasteizen gertatutakoaz baino ezin zuela berak fede eman, jatorrizko Gasteizko biztanleria bost milaz biderkatu aurretikoaz, Batanen lekukorik gabe elkarri zirrrika gustura aritzen ziren bikoteenaz, edo orain auzo berri eta beretzat ezezagunez beterik zeuden aldirietako baratzetakoaz.

–Meli Zabaleta? –galdetu zuen–. Oraintxe bi aste hil zen.

–Bai, badakit. Haren senideak informazio bila dabilta. Badakizu... herentzia kontuak.

–Zer dela-eta?

–Dirudienez, sasiko seme bat izan zuen, eta inork ez zekien horren berri.

Gizona kopetilun jarri zen, eta kafe trago bat edan zuen.

–Meliren aita suhiltzaileburua zen, eta amak mertzeria bat zeukan, *Fémína*, San Pedro elizatik hurbil. Komeriak izan zituen erakusleihoan soin batzuk jarri zituelako bularretakoak eta barrenekoak erakusteko, hura erabateko lizunkeria zela esan baitzuen erretoreak. Kontua da mutikoak han aurrean geratu eta txantxetan jarduten genuela. Gaur egun, daukaten guztia erakusten dute emakumeek; baina, garai haietan, irudimena besterik ez geneukan. Julia andrea zirt edo zarteko emakumea zen, eta, esaten zutenez, bilera subertsiboak egiten ziren haren lokalean.

–Subertsiboak?

–Bai, dendostean, itxura denez. Ate bat zegoen kale kan-toira ematen zuena, eta, poliziaren bat edo ezezagunen bat dendan agertuz gero, ate hartatik ihes egiten zuten bilerakoek lasterka.

–Zer egiten zuten baina?

–Hitz egin. Gazteek ez dakizue zer izan zen hura; garai latzak izan ziren, alajaina. Mukizu bat besterik ez nintzen arren, oraindik ongi gogoan ditut ordukoak; baina une alaiak ere izan genituen...

Jon galduta zebilen agurearen jardunarekin. Ez zuen kontu zahar haiekiko batere jakin-minik; bere etxean sekula ez

zuten hitz egiten iraganaz, ezta benetan garrantzizkoa zen beste ezertaz ere.

–Eta Amelia andrea?

Ezinegonak jota entzun zuen Genaro jauna bere oroitzapenak bata bestearen atzetik kontatzen, kopa bat anis eskatu ondoren, eta bere gaztetako kontuak esaten, erromerienak, jaienak, aspaldiko pertsonaiak.

–Eta Amelia andrea? –errepikatu zuen, gizonak kopan gelditzen zitzaion azken anis tanta edateko egindako isilune batean.

–Urteetan egon nintzen Amelia ikusi gabe. Gero, halako batean, Gasteizen azaldu zen berriro, Evaristo Rojas zeritzon batekin ezkondua; gizon aberatsa zen, eta inortxok ez zuen haren jatorriaren berri, baina argi zegoen leialtasunaren ordainetan jasoa zuela fortuna hura. Garai hartan, leial iraun zutenek soilik lortu zuten beren ondasunei eustea edo haiek ugaritzea. Txatartegi bat eta beste negozio batzuk jarri zituen, adibidez, okindegi, kuartelak hornitzen eta Zadorrako urtegiak eraikitzeke lanetan ari ziren langileak elikatzen zituen. Denbora gutxian itzelezko dirutza bildu, eta txaleta erosi zuen. Ez zuen izan kargu politikorik, baina alkatearen atzean joaten zen beti prozesioetan, eta, jaietan, Udaletxeko balkoian agertzen zen. Oso gizon fededuna zela esaten zuen, eta Gau Adoraziora eta horrelakoetara joaten zela; baina, behin batean, auto istripua izan zuen Mirandako bidean, eta ez zihoan bakarrik. Autoan berarekin zihoan neskatilak hanka bat galdu zuen. Egundoko eskandalua izan zen. Haurdun utzi zuen beste maitale baten kontuak ere zabaldu ziren. Gizonak ezertxo ere

jakin nahi ez, itxuraz, eta neskatila Madrilera joan, eta bere bu-ruaz beste egin zuen, esaten zutenez. Gizagaldur haragizale hu-tsa zen –amaitu zuen gizonak.

–Eta emaztea?

–Pentsatzen dut senarraren ibileren jakitun izango zela Meli ere, beste guztiak bezalaxe; baina ez zitzaizkion asko axola, itxuraz, behintzat. Ez dakit, ez genuen harreman han-dirik. Ez zen kalean sarri ibiltzen, nahiz eta tarteka topo egin izan genuen, El Círculo Vitoriano elkartearen eta hiletaren ba-tean. Pertsona hotza zirudien, beti beste nonbaiten balego be-zala, eta doi-doi esaten genion hitz erditxo bat elkarri. Hara, hain zeresan gutxi ematen zuen, behin baino gehiagotan pen-tsatu izan baitut honezkero hila ote zen, eta harrituta gelditu nintzen haren heriotzaren berri izan nuenean.

–Semeari buruz, arrastorik ere ez, beraz.

–Ez. Adoptatzeko emango zuen, edo jaioberritan ken-duko zioten. Auskalo! Oso garai... nahasiak izan ziren haiek; baina hitz egin ezazu haren ahizparekin, artean burua galdu ez badu behintzat, badakizu-eta zaharrak ahitu egiten garela pix-kanaka, baita noizbait ahaltsuak izan zirenak ere.

–Zer ahizpa?

–Fernanda, Meliren ahizpa gaztea. Mojen egoitzan ikusi nuen, Armentia horretan, orain pare bat hilabete lagun bat ikustera joan nintzelarik. Hark esango dizu zer bait, be-harbada.

Eginahalak eta bi egin behar izan zituen berehala zutitu eta tabernatik ez alde egiteko. Egonarriz eutsi zion, ordea, gi-zonak egoitzan bizi ziren bere adinkideen zerrenda osatu arte.

Oso gutxi ziren laurogeita hamarrak beteta bera bezala etxean bizitzeko moduan zirenak, gehitu zuen harro, bere adinari urte batzuk erantsita.

–Eta zer moduz dabil zure ama? Aspaldi ez dut ikusi. Zure aitona ezagutu nuen nik, gizon zintzo askoa...

–Bada, begira, oraintxe geldituta nago amarekin, asteko kontuak egiten laguntzeko –bota zuen bizkor, bere familiaren bizi-mirariak entzun behar ez izateko–. Barkatuko didazu, baina berandu nabil.

–Tira, bada, kontatuko didazu zer gertatzen den Ameliaren herentziarenarekin.

–Bai, jakina: ez kezkatu. Atsegin handia izan da niretzat.

Bi kafeak eta anis kopa ordaindu, eta Casablancatik atera zen. Izugarritzko hotza zegoen: berokiko lepoa jaso, eta zigarroa piztu zuen, Senda aldera hartu aurretik, Amelia Zabaletaren ahizpak informazio baliagarriaren bat emango ziolako itxaropenez. Bidean, zenbait ezagunekin topo egin zuen, baina ez zen haiekin hizketan gelditu; buruarekin keinu beterik ez zien egin, urratsa mantsotu gabe. Betidanik izan zuen gustukoa pasealeku hura, txikitatik; batez ere, udazkenean, zorua indigaztainaz estaltzen zenean. Neskatzai izterretara gaztainak jaurti eta aguazila agertutakoan lasterka ihes egiten dibertitu ohi ziren bera eta lagunak. Haiek garaiak! Orduan egunak kamera geldoan igarotzen zirela iruditzen zitzaion, orain ez bezala. Berrogei urte beterik, familiarik gabe, dirurik gabe, eta etorkizunik gabe, pasealekuko gaztainondoak bezalaxe sentitu zen bat-batean, zahar, biluz. Zuhaitzak berriro loratuko ziren udaberrian, baina berdin-berdin

jarraituko zuen berak: etsipenak harturik, gauak zigarroa erre eta erre emanaz, telebistako zaborra ikusten. Hain zihoan bere gogoetetan murgilduta, ez baitzuen begiratu ere egin pasealekuaren eskuinaldeko jauregitxora, ezta ikusi ere lore ihartuen koroa atean, krespoi beltz eta guzti. Harritu egingo zen ikusi izan balu, dagoeneko ez baitzegoen era horretako hileta apaingarriak jartzeko ohiturarik. Arrazoi beragatik ez zuen ikusi, halaber, etxean sartu gabe bere ikusmiratik desagertu arte begiradaz jarraitu zion neskatxa.

Egoitza parera iritsitakoan gelditu zen, hogeit hamar minutu pauso bizian oinez egin ondoren, eta sakon arnasa hartu zuen. Jada ez zen mendira igo eta ohetik jaiki berritan bezain fresko jaisten zen mutiko adoretzu hura, eta Armentiako ibilbidea atsegina zen udan, baina ez 0°-ko tenperaturarekin. Izoztuta zituen eskuak eta oinak, eta damutu zitzaion taxia hartu ez izana; baina, berehala, bere buruari gogorarazi zion bere ekonomia inola ere ez zegoela halako gehiegikerietarako. Ameliaren ahizparekin hitz egin behar zuen ikerketarekin jarraitu edo dena pikutara bidali erabaki aurretik, eta birao egin zuen, gogoratuta Elvira Rojasek aurrerakin modura emandako mila euroak ia osorik gastatu zituela, zor batzuk kitatzen eta arropa berria erosten. Hirurehun baino zertxobait gehiago gelditzen zitzaion, eta bizkor ibili beharko zuen zer edo zer aurkitu eta lana amaitzen zuenerako agindu zizkieten beste mila euroak kobratzeko. Bestela, amari eskatu beharko zion, eta epelak entzun beharko zituen, dendan laguntzen ez ziola-eta. Egoitzako atea bultzatu, eta ingurura begiratu zuen. Toki ospela espero zuen, filmetan ikusitako horien antzekoa; baina ez zen

halakoa, inola ere. Are gehiago: bero ikaragarria zegoen barruan, eta, moja batek ez, gizon irribarretsu batek egin zion harrera harreralekuko mahaian. Atariko eserleku eroso haietan itxaroteko esan zion, Fernanda Zabaletari deitzen zioten bitartean; zorte pixka batekin, gehitu zuen gizonak, bere gelan egongo zen. Handik minutu batzuetara, moja bat hurbiltzen ikusi zuen, atso itsu bati laguntzen; atsoak ile zuri-zuria zuen, motots batean bilduta, zapatilak zeramatzan oinetan, eta artilezko xala, sorbalden gainean.

–Zu al zara Fernandarekin hitz egin nahi duena? –galdetu zion lekaimeak.

Oker ez bazebilen, lehen aldia zen moja batekin hitz egiten zuena, eta harrituta gelditu zen: bai, mojek ere hitz egiten dute! Eskerrak arropa berriak jantzita joan zen –galtzerdiak eta zapatak barne– eta goitik beherako jaun baten itxura zuen. Zutitu, eta behin eta berriz baietz egin zuen, burua astinduz.

–Ordubete daukazue. Ordu batak puntuan ematen diegu bazkaltzen –ohartarazi zion mojak irribarre batez baina erantzunik onartzen ez zuen agindua ezkutatu ezkeinu haren atzean.

Emakumea sofaren ertz batean eseri zen, bera hizketan hasi zain; Jonek arretaz begiratu zion. Laurogeita asko izango zituela kalkulatu zuen, ile zuriagatik eta bastoiagatik, batez ere, leun-leuna baitzuen aurpegiko azala, arrosa kolore apalekoa, zimurrik gabea. Zerbait ikusten ez ote zuen ere iruditu zitzaion, begirada distiratsu gazte batez begiratzen baitzion.

–Jon Martínez de Albeniz dut izena –aurkeztu zuen bere burua–, eta ez dakit nondik hasi ere... Zure ahizpa Ameliari buruz da.